

Jarduera: LH 6.1.03**Dokumentua: hiztegi_zientifikoa**

1. Hemen dituzu grekozko eta latinezko hainbat hitz eta horiei dagozkien esanahi posibleak. Modu egokian elkartuko al dituzu?

geo	lurra	logia, logos	azterlana, zientzia	metron	neurria
spelaion	haitzuloa	graphe	deskribapena, idazketa	sphaira	esfera
atmos	lurruna	litos	harria	morfo	forma
topos	tokia, lekua	sismo	astindua, astinaldia	hidro	ura
thermos	beroa	exo	kanpo	mesos	tarteko

2. Osa itzazu beheko esaldiak, honako elementu hauez eratutako hitzak erabiliz.

espeleo	grafo	geo	lito	sismo
morfo	grafia	logia	logo	topo

- Inprimatzeko teknika bati deritzo **litografia**. Harrizko plantxa baten gainean grabatutakoa, nahi adina kopia ateratzeko erabiltzen da.
- Lurrikarak eta, oro har, lurrazaleko mugimenduak aztertzen dituen zientzia da **sismologia**.
- Espeleologoak** lurpeko barrunbe naturalak (leizeak, lurpeko ibaiak, haitzuloak, etab.) aztertzen eta esploratzen dituzten zientzilarioak edo kirolariak dira.
- Lurrikarek sortzen dituzten astinaldiak erregistratzeko gailua da **sismografoa**.
- Topografia** lur-sailen neurriak eta forma ezagutzeko eta paperean zehaztasun guztiakin irudikatzeko erabiltzen den teknika da. Mapak eta errepideak egiteko erabiltzen da.
- Lurrazaleko erliebearen formak aztertu eta azaltzea helburu duen geologiaren atala da **geomorfologia**.

3. Kontzeptu bakoitza dagokion definizioarekin erlazionatu:

Termometro	Tenperatura neurtzeko erabiltzen den tresna.
Hidrometro	Higitzen ari diren likidoen emaria, abiadura zein indarra neurtzeko tresna.
Hidrosfera	Lur planetako ur-masa, ozeano, itsaso, aintzira, ibai eta lurpeko urak barne direla.
Litosfera	Lurraren zati solidoa.